

PuLunPe

144. ZeNBakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia

GEREZIAK

Zuhaitzak ikusi nituen biluzirik
 neguan karroina zelarik,
 eta ikusi ditut hostotan
 udaberriko hastapenetan,
 baita ikusi loretan
 maiatzeko egunetan...
 Zuhaitza ikusi dut gerezitan
 udako beroen ataritan,
 gerezi gorriak ene hortzetan
 senditu ditut frankotan,
 kroskatu hamaiketan,
 goizeko ihintzetan,
 ez ditut ahanztekotan !
 Amak ezarriak erreximentetan,
 hautatuz lerrokatutako poteetan,
 hedatuz ogi freskotan,
 baita bokaletan siropetan,
 harrotutako pastizetan,
 arratsaldez krakada xamurretan !
 Halako gereziak errubi gorritan,
 nahi nituzke gaurko haurren pentzeetan,
 ziren bezala ene haur garaietan,
 geldi daitezen oroitzapenetan,
 gaur diren bezala nireetan,
 datozen biharamunetan !

LUIXA GILTZU

Josu Santxo, gure laguntzaile ausarta

Ametza elkarteak zorte handia izan du Eritzen Josu bezalako bat topatzearekin. Euskaltzale suharra, gure aldizkaria banatzen urteak daramatza, lehenbiziko egunean bezala, Pulunpe hartu eta, denbora galdu gabe, Eritzen eta Eguaratsen egiten du banaketa.



Nork ekartzen dizkizu Pulunpe aleak?

Beuntzako Zurgifñeneko Edurnek ekartzen dizkit eta nik Eritze eta Eguarats herrietan banatzen ditut.

Eritzen jende gutxik daki euskaraz.

Bai, hala da, egia esateko jende gutxik daki euskaraz.

Eta euskaraz jakin ez eta, nolako harrera egiten diote Pulunperi?

Ongi, jendeari, nahiz euskaraz jakin ez, gustatzen zaio fotografiak ikustea eta familiakoren bat euskalduna badute, zer dakarren galdatzen diote, eta horrela. Nik uste dut gustura hartzen dutela.

Josu, zuretako sakrifizio bat da. Hemen, Eritzen banatu, gero autoa hartu eta Eguaratsa joan eta banatu.

Bueno, gauzak gustuz egiten direnean, aise egiten dira. Badakizu, esaerak dioen bezala, *gogoa den tokian aldaparik ez*.

Zu oso ongi integratu zara herrian eta ibarrean. Hona, herrietara etortzen den jende aunditz ez da integratzen. Hirietatik datozenez ari naiz.

Nola sartu zinen zu gure gizartean.

Zortea izan dugu guk, Aroztegi eta Beuntzara etorri diren zenbait familia oso ongi integratu dira. Nik, nire kasua konta dezaket. Bueno, nik aldeko zerbait bannen, nire andrea hemen jaio eta bizitakoa baitzen, 16 urteak arte. Osaba soltero bat ere bazuen hemen.

Bai, zerbait aldeko bazenuen, baina zerbait gehiago egin beharko zenuen.

Ez dakit, ni lehen momentutik ihoteetara joaten hasi nintzen. Hemengo ohiturak ikasi, hemengo jendea ezagutu. Nik, adibidez, jende guztia ezagutzen dut eta haiek ere ezagutzen naute. Badakizu gauza bat? Nik ibarreko etxeen izenak ikasi ditut. Niri izugarri gustatzen zait gazteek etxeen izenak jakitea eta erabiltzea.

Zure andrearen familia zein etxeetan bizitu zen?

Eritzeko ostatua edo *Etxeberrian*. Bai, bai, garai batean bere gurasoak Eritzeko ostalariak izan ziren.

Ametzakide dugun Josu, urtero-urtero kuota ordaintzeaz gain, lehenbiziko egunetik laguntzaile handia izan dugu.

Laguntzailea eta adiskidea. Urren arte, Josu!

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA


Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi. **Emaila: pulunpe@gmail.com**

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan. Azala: Arantxa

Koordinatzaileak: **Lur Gil eta Rey Iosu Martinez Urdaci**

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U - Lege gordailua: NA 721/93



2015EKO IRAILAREN 2AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.

Euskalduntzen ari diren herritarrei diru-laguntzak

-Diruz lagunduko da 2014ko irailaren 1etik 2015eko abuztuaren 31 arte egindako ikastaroen matrikula gastua.

-Diruz lagunduko dira Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta

informatika bidezkoak.

-Diru-laguntzaren zenbatekoa gastuaren %50ekoa izanen da gehienez ere (ikastaroa irauten duen bitartean langabezian egondakoentzako %100ekoa).

-Epea. Eskabideak aurkezteko epea 2015eko irailaren 1etik 15era.

-Informazioa eta dokumentazioa eskatzeko: deitu 948305134, Euskara Teknikariaren bulegora.

IRAILAK 20;
19:00 LARRAINTZAR Jazz

daritzen dituela derendatzen duen Naomi Kleinen

EUSKARA HUTSEZKO UDALAKUETARA JOAN DIREN HAUR ETA GAZTEENDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Deialdi honek 2015. urtean zehar burutuko diren eta honako ezaugarri hauek dituzten udalekuak hartuko ditu kontuan:

- Haur edo gazteei zuzendutako euskara hutsezko udalekuak izatea.
- Udalekuak 5 egun baino gehiago eta 15 egun baino

gutxiago irautea eta udako oporren garaian eskaintzea (ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte).

-Diru-laguntza gehienez gastuaren %40ekoa izanen da.

-Eskabideak egiteko epea 2015eko irailaren 30era bitar-

tekoa izango da.

-Deialdi honetako diru-laguntza eskuratzeko eskabidea udalekura joan den haur edo gaztea ordezkatzeko duen aita/ama/tutoreak egin beharko du, Euskara Teknikariaren Bulegoan, 940 30 51 34 telefono zenbakian



HERRIKO JAIEN EGUTEGIA

IRAILAK 11, 12, 13: IRAIZOTZ, ITSASO
IRAILAK 25, 26, 27: BERAMENDI, EGOZKUE
URRIAN: SUARBE, ILARREGI, LIZASO

APEZTEGIBERRI OSTATUAK

WEBGUNE BERRIA DU:
WWW.APEZTEGIBERRI.COM



MINTZABIDE PROGRAMA

IKASTURTE HONETAN ERE MINTZA-TALDEAK OSATZEN HASIKO DIRA GURE BAILARA GUZTIETAN. EUSKARA PRAKTIKATZEKO BEHARRA ETA GOGOA BALDIN BADUZU JAR ZAITEZ GUREKIN HARREMANETAN: 688648352 /948305134

Behi-esne sektorea larri

Europako Batasunak apiriletik aurrera esne ekoizpenerako kuotak bertan behera uztea erabaki zuen. Abeltzainak araurik gabeko merkatu baten murgildu dira erabat ahulduta, badira lanik gabe geratu direnak ere.

Esne sailean ohikoak dira 0,24 eta 0,28€/litro prezioak jasotzea; ekoizpen kosteak beteko lituzkeen prezioa ekainean 0,356€/litrotan zehaztu den bitartean. Esne litroarenagatik 0,15€ jaso duten abeltzainak ere badira, eta galiziarrek dira abeltzainik dira kaltetuenak.

Euskal Herrian eta estatuko zenbait puntutan, oinarri kooperatiboa duten enpresak prezio duinak mantentzeko lanean ari dira, baina prezioen jaitsieraren aurrean ez bada neurririk hartzen, merkatuak abeltzain guztiak itoko ditu.

Espainiako nekazaritza ministroak berriki iragarri zuen irratian, gastuak dituzten abeltzainei 300 euroko dirulaguntza emango ziela. Hala ere ez da inongo idatzitan agertzen, eta ez du arautu zeinek jasoko duen eta zeinek ez. EHNE eta UAGN sindikatuek erakundeen inplikazioa eskatu dute, haien esku baitago kontsumitzaileek bertako esnea edaten jarraitzeko aukera izan dezaten.

Guk zonaldeko abeltzainetako batzuekin hitz egin dugu, haien egoera ezagutu nahiean.



BELATE SAN JULIAN, Ilarregikoa: **“Sektorea amaitzen ari da, kuotak kentzeak ez du eragin nabarmenik izan Nafarroan, baina gutxinaka itotzen ari gaituzte”**

Belatek Ilarregin ditu behiak, familia esplotazioa da, gurasoek eramaten zutena eta orain berak. Ehun

behi baino gutxiago ditu produkzioan, esplotazio txikia du beraz. Nafarroan hainbeste ez nabaritzearen arrazoiak hemen ditugun enpresen seriotasunari egotzi dio. “Enpresak grupoak baino hobeki daude, grupoetan esnearen prezioa igo eta jaitsi egiten da, eta bereziki Galizian egoera larrian daude asko” dio Belatek.

Ilarregin etxe guztietan zituzten behiak duela 20-30 urte, baina beste herri eta bailara askotan bezala, askok utzi dute bizimodu hori. Bere esanetan, “mantentzen garenak, bizimodu honi diogun arraigoagatik da, ez dirua egiten dugulako”.

Ministroak iragarritako 300 euroko diru-laguntza lotsagarritzat jotzen du: “esplotazio batzuei baino ez zaie emango, dirua galtzen ari direnei emanen zaiela adierazi du, Galiziakoei bakarrik, desagertzeko arriskuan dauden gainontzekoei ez. Partxe bat baino ez da gainera.”



PEIO DORAY, Beramendikoa: **“Saltoki askotan reklamo produktu bezala daukate esnea, daukan prezioan baino askoz merkeago salduz, lotsagarria da hori”**

“Nafarroan eta Euskal Herrian sektorea bukatzeaz

doa. Nafarroan azken hamar urtetan, urtero 10 esplotazioak itxi dute. Duela 10 urte 279 izatetik, orain 178 izatera pasa gara, azkarregi doa”. Oso kritiko mintzatu zaigu Peio Doray, eta estatuak eta industriari egotzi die egoera honen ardura.

Diru-laguntzaz galdetuta, esperantzarik gabe erantzun digu: “Sektorea salbatzeko behar dena da borondatea, eta ez partxeak jartzea”, eta kuotak ezartzean egin zirenak ere gogoratu dizkigu: “Kontsumitzen duguna baino gutxiago produzitzen dugu, eta kanpo merkatuak hartua du espainako kontsumoaren %30 edo %35a. Gehiena frantsesa da: Lclerc, Carrefour... Haiek daukate espainiar merkatuaren portzentai hori, eta produkzioa igoko genuela esatean kanpotik datorren esnari ez zioten neurririk jarri. Eta hortaz ez dute hitz egiten uzten”.

Honakoa ere esan digu Peiok: “Hemen gauza ona da enpresa onak izatea alboan, Kaiku eta Ipar-

lat bezala. Beste enpresekin oso kaltetuak daude abeltzainak. Norma zorrotzak jarri behar zaizkie enpresei, eta esnearen prezio minimoa finkatu, nahiz

eta ilegalak dela dioen ministroak kompetentzia legea urratzen duelako. Frantziar ordea, nahiz eta dekretu bidez ez izan, prezio minimoa finkatu dute”



MARIA ANGELES SARASIBAR, Alkozkoa: **“Industriak kantitatearen aldeko apustua egiten du, kalitatearen aurka”**

4 esne behitegi baino ez dira geratzen Alkotzen, zonaldean gehien dituen herrien artean egonen da, baina duela urte gutxi askoz gehiago ziren. 75 behi ditu produkzioan, eta berak dioenez, larri dago, “dirua

galtzearen mugan, produkzio gastuak eta irabaziak pare parean, baina asko daude iristen ez direnak”.

Industriaren papera salatzen du Maria Angelesek: “Industriari esplotazio handiak komeni zaizkio, merkeago erosi ahal izateko, hauek produkzio gastuak txikiago dituztelako. Hala ere arazo gehiago izateko arriskua dute esne saltzaile gutxiarekin askorekin baino”.

Europar Batasunak kuotak kentzearen eraginaz hauxe dio: “Momentu honetan, teorian nahi beste produzitu dezakegu, baina praktikan ez da hola, markarekin lehengo kopuru bera daukagulako kontratatua, eta gehiago produzitzen dugu bai, baina soberakinen prezioak izugarri jaisten dira europatik datozen soberakinen ondorioz, eta bereziki grupoetan, kaiku edo iparlat bezalako merkatu ez horrenbeste”.

Egonkortasuna da abeltzainek behar dutena bere ustez, baina kompetentzia legeak prezio minimo bat ezartzea debekatzen duenez ezin aurkitu egonkortasunik merkatu librean.



IÑIGO ANAUT, San Migel Kooperatibako gerentea (Oskotz): **“Esne produktore bezala soilik geratzen dena, oso zail izango du bizirauteko”**

Zonaldeko behi esne proiekturik handiena da dudarik gabe; 600 behi dituzte produkzioan, eta 1000 baino gehiago guztira. Lacturale esnearen bazkide eta fundatzaileak dira gainera. Iñigo Anaut kooperatibako gerentea dio esne marka baten bazkide izatea berme bat izan daitekeela sektorearen ezegonkortasnari aurre egiteko: “Marka propio bat daukagunez ez dugu eragin larririk izan, escedenteetan bai. Gainontzekoa prezio askoz baxuagoan erosten dute. Hori denoi eragin digu”.

“Bakoitzaren ezaugarrien eta konpetitibitate gaitasunaren arabera gehiago edo gutxiago eragin du krisi berri honek sektorean, baina ez du tamainarekin zerikusirik. Barne antolakuntza, baliabideak, erosketak, salmentak... ongi kudeatu behar dira”. Hala dio Iñigo Anautek, behitegien egoeraz galdetuta, “hemen esplotazioak galizian baino antolatuagoak daude, horregatik ez da hainbesteko eraginik egon”.

Sektorearen egoerak badu beste faktore bat: “Errusiaren aurkako zigorrak ere eragin digute negatiboki, europar soberakinak ez zaizkio Errusiarri saltzen orain, eta honela gazta bihurtu eta oso merke saltzen dute hemen” dio Anautek. “Esne produktore bezala soilik geratzen dena, oso zail izango du bizirauteko, industriak finkatutako prezio baxuan saldu beharko baitu esnea, eta horrek ez du gastuak ordaintzeko ematen. Marka batekiko lotura ezinbestekoa da, guk Lacturalerekin bezala.”

Azkenik, 300 euroko laguntzatz galdetuta beste galdera batekin erantzuten digu: “Existitzen da? Ez da inongo buletinetan atera, beraz ez da existitzen oraindik, eta ez da kasualitatea hauteskundeak gainean direla esatea”. Irudian, Ismael Lorente presidentea.

Ultzamako biometanizazio plantari irtenbide bila

Ekonomiari eta tokiko garapenari dagokionean gai nagusienetakoa izan da biometanizazio planta azken legegintzaldian. Udal gobernu berriaren lehentasunezko gaietako bat da hau, eta kurtso politiko berria hasi aurretik ere lantzen hasi dira. Informazioa bildu ostean, herritarrekin partekatzea erabaki zuten eta bilera ireki bat deitu zuten.



Arantxa Martinez alkateak esan bezala, lehenengo aldia zen Ultzamako udalak era horretako bilera ireki bat antolatzen zuela, eta horregatik "oso positibotzat" jo zuen. 44 pertsona bildu ziren, eta interesa eta parte-hartzea handiak izan ziren. Udalak eta plantako gerenteak informazioa eman ostean, galdera eta ekarpenen txanda ireki zuten; hau izan zen interesgarriena, ordubete baino gehiagoz aritu baitziren plantaren egoeraren xehetasunez mintzatzeko.

"Ultzamako udalak parte-hartzea sustatu nahi du, eta horregatik erabaki dugu informazio garrantzitsu hau herritarrei irekitzea" esan du Arantxa Martinezk alkateak. "Aurrekari bat" suposatu

duela ere gehitu du, beldur baitziren bilera honek izan zezakeen parte-hartzeaz, baina emaitza ona izan dela esan du.

Biometanizazio plantaren balantzea:

Ultzamako biometanizazio planta Bioenergia enpresaren eskutik zegoen 2010etik. Mindaren gestioa eraman zuen honek, eta gero biometanizazioa, argindarra eta energia termikoa ateratzeko. 2014ra arte normaltasunez funtzionatu zuen, baina 2014an Espainiako gobernuak kanon bat ezarri zuen energia sortzeagatik diru gutxiago ordaintzea agintzen zuena.

Bioenergiak asanblada zuen orduan. Bazkideak, nekazariak, partikularrak, pentsu

etxeak, albaiteroak... izan ziren bertan, enpresaren etorkizunaz mintzatzeko. Dirua galtzen hasi zen, eta bideraezina ikusi zuten planta, eta hartzekodunen konkurtso egoeran sartu zen. Ultzamako udalak, orduan, bahitzea erabaki zuen, hau da, plantaren gestioa udalaren eskutik igarotzea. 6 hilabetez egin zen, eta gero 3 hilabetez luzatu.

2014an bahiketa egin zenetik gaur arte pilatutako galera 77.980 euro ingurukoa da, baina kobratzeko dauden kontu batzuk eta argindarra sortzeari lotuta ordaindu beharreko zergak (17.069) kontuan hartuta, 37.648 euroko galera dago. Plantak duen zorra urrian ordaindu beharko da, eta honi irtenbide bila ari

da udala abokatuen laguntzaz.

Planta minimoki behar bezala jartzeko 300.000€ inguruko inbertsio bat beharko litzateke. Horrek aukera guztiak ongi aztertzea eskatzen du, baita herritarrei egoera eta aukeren berri ematea ere. Bahiketa hilabete batez luzatzea erabaki du udalak, egoera zein den aztertzen jarraitzeko, beti ere egungo egoera ahalik eta epe laburrean argitzeko helburuarekin. Bi irtenbide baloratzen ari dira une honetan:

Irtenbideetako bat planta itxi eta saltzearena da. Hala ere, ez luke arazoa erabat konponduko, egoera kaxkarrean baitago, eta makineriak eta materialek ez baitute deus ere balio. 0 eurotan edo txatarrak balio duen prezioan saldu beharko luke udalak.

Bigarren irtenbidea kanpoko enpresa pribatu bati saltzea da. Udalak aztertzen ari da aukera hori, enpresa bat interesatuta baitago, eta bilera batzuk egin dituzte bai enpresarekin eta baita nekazariarekin ere, azken finean haiek baitira minda dutenak eta haien dirua baita kokolan dagoena.

Ultzamako Udalak udal batzordeak jarriko ditu martxan, parte hartzeko deiarekin



Uztaileko osoko bilkuran eratu ziren udal batzordeetan parte hartzeko gonbitea luzatu dio Ultzamako Udalak herritar orori; norbanako zein talde edota eragileetako ordezkari gisa.

Udalak dioen bezala, "gardena eta herritarrekin elkarlanean arituko den udala lortzea" da helburua, eta horretarako parte hartzean indarrak jarriko dituztela adierazi dute. Udal batzordeetan parte hartzeri dei egin dute: "Ultzamako herritar zein eragileek dituzten proposamen, galdera eta kezak jasotzeko modu zuzen eta argiena aktiboki parte hartzeko aukera ematea da". Izena ematea:

- Epea: irailaren 30a baino lehen. Hala ere hortik aurrera norbaitek interesik balu eskaera egin lezake.
- Nola: udaletxean bertan eskaera orria betez edo ayuntamiento@ultzama.es helbide elektronikora mezu bat igorritik.

-Helarazi beharreko informazioa: izen-abizenak, telefono zenbakia, edukiz gero, helbide elektronikoa eta batzordearen izena.

BATZORDEAK:

Kontu batzordea soilik udal ordezkariak osatuko dute eta honen egitekoa aurrekontuak prestatu eta onartzea izanen da. Hala ere, aurrekontu horiek herritarrekin prestatzea garrantzitsua dela iruditzen zaie, hori dela eta berau osatzen duten ordezkari politikoak gai honetan interesa duten herritarrekin elkartuko dira Ogasuna eta Ekonomia izeneko batzordean.

Beste batzordeak dira:

- Hirigintza, Etxebizitza eta Azpiegiturak
- Abeltzaintza, Landa-garapena, Mendia, Ingurugiroa eta parke mikologikoa
- Hezkuntza, Kultura, Aisialdia eta Euskara
- Kirola
- Industria garapena, Zerbitzuak eta Turismoa
- Kontzejuekin harremanak
- Ehiza

Igerilekuak bainatzeko baino gehiagorako balio izan du udan

Uda bukatzean da, eta igerilekura bainatzera joateko eguraldia ere bukatuko da. Eguraldi onak eta beroak jende ugari hurbilaz du uretara, baina ez da bainatzearena izan igerilekuen eskaintza bakarra. Igeriketa ikastaroa, aisialdi jarduerak, Gozamenez programa...

Jende asko bere kabuz ibili da uretan, baina beste asko igeriketa irakaslearekin ibili dira, edota aisialdi monitorea berriarekin. Aurten, gainera, iaz arrakasta handia izan zuen ur festa errepikatu dute. Gozamenez programaren baitan antolatu dute aurtengo ur festa ere. Ongi pasatuz sexualitatea lantzea da programaren helburua, eta hiru saioen bidez egin dute: igerilekuko ur festa, Aizarozko masaje tailerra eta Larraintzako irriterapia.

Ur festan sexualitatea landuz

12 eta 17 urte bitarteko 58 gaztek hartu zuten parte gozamenez programaren ur festan. Mankomunitateko berdintasun eta kultur teknikariak oso positibotzat jo dute kopurua, eragin positiboa duelakoan zonaldearentzat. Gazteen balorazioa ere oso positiboa izan zen;

gustura ibili ziren eta sexualitateaz eztabaidatzen eta probatzen egon ziren. Afaldu ondoren sexualitatearen inguruko film labur bat ikusi zuten, iaz ultzamako gazteek egindakoa; gero eztabaida etorri zen, eta jarraian jolasak igerilekuan.

Aizarozko masaje tailerrean eta Larraintzako irriterapien parte-hartzea handia izan zen, eta Gozamenez programaren balorazio oso positiboa egitea besterik ez dago. Harrera ona erakutsi diote ultzamaldeko gazteek sexualitatea lantzeari; Josune Antxo berdintasun teknikariaren hitzetan "adin horrekin, gazteek galdera asko dituzte, beldurra bai, baina baita gauza berriak probatzeko gogo handia ere. Beti lotsa dela medio, noski, baina normalean irrikitan egoten dira honelako programetan parte hartzeko".

Zer da sexualitatea?

Bukatzean, urte luzez sexualitateaz ulertu dugunarekin hausteko beharra adierazi du Josune Antxok: "Gure gizartean sexualitateaz hitz egitean ematen du bakarrik genitalizazioaz eta koitoaz ari garela, baina badaude beste aukera aunitz sexualitatea lantzeko eta hori erakutsi behar zaie gazteei".

Emaitza **desberdinak** udako turismoan

Ultzaman oso sasoi ona izan badute ere, Basaburuko Landetxeek behera egin dute



gaitu jasotako erantzunak nahiko desberdinak direla, nahiz eta orokorrean uda ona izan dela azpimarratu. Kontuan hartu behar da azken urteetako udarik be-roena pasa dugula, horrek duen eraginarekin.

Deigarria izan da Ultzamako guztiek oso pozik daudela esatea, lanez gainezka egon baitira, ostatu, jatetxe eta landetxeetan. Berriagoak diren negozioak ere oso pozik agertu dira: Larraintzarko ostatukoek, adibidez, azpimarratzen ziguten famili askok eramateko ogitartekoak, tortillak

edota eramateko menuak eskatzen zutela, nolabait aitortuz familia askorean turismo eredu aldatu dela.

Galdetu dugun Basaburuko landetxeetan ez daude, orokorrean, pozik, behera egin baitu etorritako jende kopurua. Bertako batek komentatzen zigun Basaburuan ez dela bertako turismoa lantzeko nahikoa esfortzurik egiten.

Zer egin dezakegu bertakoa mantentzeko eta aldi berean negozio sostengarriak eta erakar-garriak sustatzeko?

Iraila ailegatu da, umeak eskolara bueltatzeko garaia, lankideen aurpegiak berriro egunero-egunero ikusteko momentua, errutinak... Halere, asko dira udan urteko sasoirik lanpetuena du-

tenak, ostalaritzan eta turismotik bizi direnak, besteak beste. Hemen-dik ona galdetu dugu Ultzama eta Basaburuko ostatu, jatetxe eta landetxeetan jakiteko, orokorrean, zer moduz joan den uda eta harritu

20 urte beteta, Orgiko natur **eskaintza** bizi-bizirik

Oporrak bitartean jende ugari egon da Ultzaman, eta Orgi basoak jaso ditu horietako asko. Garrapo taldeak natur eta kultura eskaintza zabala prestatu du bisitari guzti horientzat eta baita bertako herritarrentzat ere.

Abuztuko larunbatetan izan dira eskaintza horiek. Bisita gi-

datuak izan dituzte Orgin ezkutatzen diren altxorrek ezagutzeko, eta harrera ona izan dute beste behin.

Kultur eskaintzarako ere erabili dute basoa, eta musika kontzertu bat antolatu zuten abuztuaren 22an. Elorri taldea egon zen goiza girotzen, 150-200 pertsona inguru bildu ziren, ordu eta erdiz jendea dantzan jartzea lortu zuten.

Gauetz ere aukera dago basoaz gozatzeko, eta horretarako Bat-night antolatu zuten, saguzar gaua. Gauetz asko aldatzen da basoa, eta soinuek xarma handia irabazten dute.

Gainera saguzarrak ikusteko momentu bakarra da. Irailetik aurrera, ziza denboraldiarekin batera beste hainbat ekimen antolatze-ko asmoa dute, beraz erne egon!

Kartel lehiaketan 100 euro irabazi nahi?
Zozketa Mundialaren kartel lehiaketaren oinarriak:
 Saria: 100 euro
 Formatua: A3, koloretan, "cuatricomia"
 Testua: Golan; "Zozketa mundiala", letra tamaina handitan, tipografia Vasca Behean, "Ametza Kultur elkarte, Pulunpe aldizkaria eta Esan Erran Irratiaren alde"
 "Zozketa: 2015 abenduaren 20a"
 Bidali pulunpe@gmail.com helbidera, pdf formatuan, irailak 30 baino lehen!

Bukaezina bihurtzen ahal den auzia

Basaburuko Udalak 8.000 euro inguruko isuna jasoko du Sinboloen Legea ez betetzeagatik




Azkenik bukatu da, baina baliteke edozein momentuan berriro hastea. Jauntsarasko udaletxetik askotan desagertu da espainiar ikurra eta aspaldi epaitegietan borrokatu da. Azkenean, Udalak epaia galdu eta 8.000 euro inguru ordaindu beharko ditu: 6.000 € legea ez betetzeagatik, gehi epaiketaren gastuak eta beste isun bat helegitea jartzeagatik. "Nafarroako Auzitegi Gorenean azken helegitea sartu zen babesgabetasuna argudiatuz", esan digute udaletxean. "Udalak bermatu behar du ikurra uneoro jarrita egotea, eta hori ezin da lortu udaletxea itxia dagoelako, demagun, asteburuetan.

Gerta ahal da berriro espainiar ikurra ostiral gau batean desagertzea eta gu astelehena arte ez konturatzea. Egun haietan Guardia Zibilak informe bat egiten badu, berriro bide judiziala hasi daiteke. Bukaezina izan daiteke, horregatik sartu dugu helegite hori". Harrigarria suertatu badaiteke ere, helegite hori jartzeagatik 600 bat euroko isuna jarri diote Udalari: "Zenbait aukera begiratu ziren, asteburuetan ikurra kentzea, adibidez, baina legeak ezetz".


Aldaketa politikoa gurean gauzatu bada ere eta Nafarroako Sinboloen Legea aldatuta ere, baliteke arazoa ez bukatzea, Espainiako Sinboloen Legearekin zerikusia baitu isun horrek: "Nafar ikurren legeak hemen ofizialak ez diren ikurrak debekatzen ditu, besteak beste. Espainiar legeak dio ikurra kanpoan eta barruan egon behar dela

eta erregearen erretratua barneko gela batean, adibidez". Udaletik kritikatu dute lege honen erabilpen politikoa: "Ikusi beharko litzateke estatuko beste leku batzuetan nola aplikatzen den lege hau, hemen ziurrenik modu desberdin batean egiten delako".



Eraso auzolanean "laureada" kendu dute

Herriko pestak zirela eta, betiko auzolana egin behar: herria garbitu, txukundu, prestatu... Baina aurten, aspalditik erabakia zuten ekintza bat egin dute: "laureada" txuriz margotzea. Imozko herri honen frontoiaren atzealdean dago herriaren izena horman jarria. Honen alboan, Nafarroako ezkutua Francok ezarritako ikurrarekin. "Batzarrean aspaldi erabaki genuen, baina badakizu, esan bai, baina egin ez". Hala dio herriko bizilagun batek. Azkenean, margo zuria eta eskailera hartu eta ti-ta batean, konponduta. Deigarria da nola ezer ezetik sortzen dituen botereak arazoak: dirutza ordaintzera behartzen du Udal txiki bat eta beraiek duela 12 urte onartu zuten legea ez dute betetzen sinbolo frankistak ezabatzerako orduan. Herritarrek, beti bezala, askoz zentzudunago jokatuta, margoa eta eskailera hartuta minutu eskaseta konpontzen dute auzia.



Tenperatura altuei eta euriei esker, onddo asko udan



Jauntsarastik nennibilen abuztuko eguerdi bero horietako batean. Apeztegi berrira kafetxo bat hartzera hurbiltzen nengoela, hara non topatzen dudun argazkiko tipoa onddo guztiak hor lurrean zabal-zabal. Hitz egiten hasi eta Gipuzkoatik etortzen zirela esan zidan, Orio eta Zestoatik. “Onddoak bosnaka ari zarete poltsara sartzen” esan eta

“halaxe zeuden, bat ikusi eta beste lau alboan hartu” erantzun.

Oso alai eta berritsu zeuden, eta horren harira galdetuz, Garrapo elkarteak konfirmatu ziguten oso uda oparoa izaten ari zela onddo kontuetan. Edurne kontatzen zigun, tenperatura altuak noiz behinkako euriekin nahasi direnez, udako onddoarendako oso proposak izan direla.

Boletus aestivalis asko hartu zituzten gure lagun gipuzkoar hauek, baina ez pentsa beraiendako gordetzen zituztenik... Lasai asko esan ziguten pagadian, bide hertzeetan hartu zituztela, eta bertatik pasa zen emakume bati batzu-batzuk oparitu zizkiotela. “Pisuarekin saskia ezin jaitsi ibili gara”.

Bietako bat onddo bila ibiltzen zen lehenengo aldia izan bazen ere, zorte handia izan zuten. “Lankideak gara eta fabrikatik atera eta hona etorri gara zuzenean. Familia eta lagunaren artean banatzen di-

tugu onddoak, mendira igotzearekin nahikoa gozatzen dugu. Aitak barre egiten zidan joaten nintzen lehenengo aldia zela eta, orain ikusiko du...” esaten zuten barre artean.

Gure hizketaldi-txoarekin bukatzeko, dozena erdi bat eman zidaten niri ere, etxean goxo-goxo jateko...

Kazetaritzako etikak dio opariak ez direla onartu behar, baina goseak bere zakurrak askatzen dituenen... Halere, hurrengo astean berriro ikusi nituen tabernan, aurpegi irribarretsua zituzten orduan ere baina onddorik ez, ez zuten egun horretan zorterik izan.

Martxan da beste urte batez Gartzarongo pilota txapelketa

Uztailaren 25ean hasi zen aurtengo Gartzarongo pilota txapelketa. 31. aldia da Toki-Alai elkarteak txapelketa hau antolatzen duen 31. aldia da, eta urtez urte arrakasta izaten jarraitzen du. Aurtengoan 188 bikote ari dira as-

teburuetan lehiatzen, honako kategoria hauetan: kimuak 46 bikote, haurrak 40, gaztetxoak 42, gazteak 20 eta helduak 40. Larunbat arratsaldean eta igande goizean jokatzeko ari dira partidak



Irudi batean

Uztailaren 5ean Alkozko haur eta gazteek bizikleta hartu zuten Ion Castilloren omenean ibilbide bat egiteko. Berak hainbeste maite zuena eginez omendu nahi izan zuten alkoztarrek lonek erakutsitako ausardia. “Batuetan eguzki izpi xume batek eguzki osoa bere osotasunean baino gehiago argitzen du”.



Pestaz pesta bitxikerien bila

Udan ospatzen dira eskualdeko pesta gehienak. Badira udazken aldera ospatzen direnak, baina argi dago gehien-gehienak uztaile eta abuztu aldean ospatzen direla. Egonen da jai gehien hauetan egon denik baina artikulu honetarako ikuspuntu desberdina bilatu nahi izan dugu: zer gauza berezi egin dira herrietan?



Uda honetako “erregeak” “Los Tenampas” mariatxiak izan dira: Artuch aita-semeak hemendik hona ibili dira eskualdeko eta kanpoko besta askotan. Hauek lehen postua izan badute, aurtun Aritz eta Amaia “bajaz” zeudelako izan daiteke. Xulapaingo “Anitaren Bilobek” ederki bete dute haien hutsunea plaza askotan.

Eta hutsunez hitz eginda. Zer gertatzen da plaza askotan, inor ez duela dantzatzen, gazte guztiak ostatuan sartuta daudela? Ez al da momentua dirua xahutzeari uzteko? Eztabaida hori sare sozialen bidez hasi du Beñat Alberro Aizarozko disko jartzaileak: “Pesten antolatzaileak ez al dira konturatzen, gazte jendea plazan dantzantzen mantentzeko ia funtzionatzen duen gauza bakarra “patxanga” jartzea dela?... Uda osoa ikusten egon naiz nola plazak hutsik geratzen diren talde eta orkestrekin eta birtartean herriko ostatura leporaino denetariko musika jartzen...”

Eztabaida interesgarria zalantzarik gabe. Nolako pestak nahi ditugu? Zer musika eta jai eredu gustuko du jendeak? Urte osoa dugu honi buruz hitz egiteko... Hurrengo uda arte!

Demagun herriko ostatura sartzen zarela eta bertan ikusten duzula eskualdeko herri bateko pesten kartela eta egia esan, gehienak antzekoak dira: janari asko, “berbena” edo orkestra gizon hauek bat, haurrendako puzgarriak, “pintacaras” famatua (eta merkea ere, aurrekontua nolabait koadratu behar baita) eta tira, alkohol asko...

Bazkari eta afariekin hasi garenez, azpimarratu nahi dugu nola Arostegin berriro ere Saharar afaria egin zuten. Basaburuan, Berueten bazkaria bai, baina bertsolariarekin, edo behintzat bertsolari batekin, Julio Soto txapeldunarekin. Bakarra diogu zer kartelari Julio Soto eta “laguna” agertzen ziren. Argi

dago askoz hobe bazkari batera gustuko duzun lagun batekin joatea, beste “edozein” bertsolari aspergarriarekin baino...

Esan digutenez, herri horretan oso bertsozaleak dira, baina aurtun Erason ez dituzte beraien pestetan halakorik antolatatu. Horretaz gain, kartelak gaztelera hutsean jarri dituzte, a ze misterioa...

Gure eskualdeko pesten bitxikeriei gainbegiratu bat ematen jarraitzen dugu: Orokietan “Paintball” delako bat antolatatu behar zuten, baina oso garestia omen zen margo-pistolek sortu ahal zuten triskantza kontrolatzea! Ea hurrengo baterako errealitate egiten den nahi hori. Alkotzen, aldiz, zezen “birtualak”

ekarri zituzten txikien gozamenerako. Enpresa batek halako ikuskizun bat antolatzen du, ikusita zezenketari lau egun gertatzen zaizkiola? Burutainen Anueko eguna ospatu zuten eta horretaz gain, pestak zirela eta, argazkian ikus daitekeen moztar festa.

Musika da udako paranden protagonistetako bat. Berbenak eta taldeak. Gartzaronen, abuztuaren 15ean gupasa antolatu zuten eta Mexikortxokoen beste “berpizkunde” bat jazo zen, eta haizetaz gain, Marianitoz Blai aldea. Esan digutenez abeslaria oraindik Tafalla aldean omen zegoen, ez dakigu eskolan geografia gaintzen ez zuelako edota hainbeste marianitok burua “nahastua” utzi zioten.

Hamaika uda, hamaika bizipen

Etxean, lanean, ikasten, igerilekuan, mendian, hondartzan... Bakoitzak haren oporrak ahal edo nahi duen moduan bizi ditu. Ezagutu ditzagun beste modu batzuk ere!

“Gure herriekin gogorarazten gintuzten pasaia berde ederrak zeuden”



Amaiur, Indian eta Nepalen ibili da

Gizarte aldaketa handia sumatu al duzu?

Gure gizarte eta herriekin alderatuta kontraste handia izan zen. Mila kolore, usain eta paraje desberdin. Jende eta zarata pila bat toki guztietan. Giro kaotikoa. Desordenatua eta nahiko zikina. Hasieratik maite izan genuen, hala ere. Esaten dutenez India maite edo gorroto duzu, ez omen dago tarteko sentimendurik.

Nepal aldera ere hurbildu zineten, nola dago egoera?

Lehenengo asteetan Indiako iparraldekoa ezagutzeari ekin genion. Hala ere, beroa jasanezina zen eta etengabe jasan beharreko gizon indioen begiradek nekazari gintuzten. Nepal aldea ezagutzeko unea iritsi zenaz ohartu ginen. Lurrikararen ondorioekin zalantza eta beldurrez, baina animatu ginen. Guau. Ez ginen damutu. Ze kontrastea. Lasaitasuna eta gure herriekin gogorarazten gintuzten pasaia berde ederrak zeuden. Jendea ere ezin maitagarriagoa. Egia da lurrikarak utzitako aztarna ilunak ikusgarriak direla eta asko sufritu dutela, baina ez da dena kaotikoa komunikabideek sinestazten diguten moduan. Haiek turismoa behar dutela aldarrikatzen dute, jadanik ez dagoela arazorik.

Zer da gehien atentzioa eman dizuna?

Beste gauza askoren artean aipagarriena: kaleetan emakumeen falta eta gizonen nagusitasuna, kasta desberdinetan oinarrituriko sistema gogor eta zahar-kiua, haur eskale pila bat kaleetan, bizi baldintza gogorak...

“Osasun oporrak izan ditu hemen Vicak”



Maria, Ukrainiako ume batekin egon dira etxean

Vicak 6 urte ditu, Ukrainian bere amonarekin bizi da eta oraindik ez doa eskolara. Ez daki gaztelera, baina azkar ikasten doa, gaztelera eta euskaraz hitzak botatzen baititu. Halere, hasieran, ikono eta mimika bidez komunikatu ziren. “Gu, adibidez, ama eta aita” gara berarentzat.

Moldatu da txikia hemengo bizimodura, “denetarik jaten du eta denekin jolasten du, nahiz eta hasieran ez zuen ezta mahaian gurekin eseri nahi”, elkarrizketa egin genuen momentuan familiako beste bat bezalakoa zen, “bere haserrealdiak eta guzti” dio Mariak umorez.

Chernovyl hiritik 100 kilometro baino gutxira dago Vicaren hiria. “Ez da erradiazio gehien dagoen lekua baina alerta zonaldean dago, lurra kontaminatuta dago eta jakiak, adibidez, kanpotik ekartzen dituzte. Erradiazioaz gain, ekonomiaren egoera ez da batere ona: “amonak dira, normalean, familiako txikiek arduratzen direnak”. Beraien zonalde horretatik kanpo pasatzen duten denbora honetan, gorputzeko barne erradiazioa dezente jaisten omen zaie.

“Kirola baino, lagun arteko erlazioak sendotzeko lagundu egin digu”



Teresa, bizikleta ibilbide luzea egin du

ren barruan sartzea gure eskualdea. Teresak eta lagunak Hendayan hartu zuten trena, eta Arcachonen hasi zuten ibilbidea.

50 eta 60 kilometro artean egiten zuten egunero, “erritmo lasaiean, gustuko bagenuen herrian bertan geratzen ginen bazkaldu edo gosaltzera”. Kanpinetan egiten zuten lo eta jan jatetxeetan. Garestia ez bada ere, ez da merkea: trena, kanpinak eta janaria ordaindu behar Frantzian. Hori bai, estuago dabilenentzat, Udal kanpinak gomendatzen dizkigu Teresak.

Osozara, 300 bat kilometro egin dituzte, eta esperientzia “polita” izan da bientzat. Egiten den kirola baino, lagun arteko erlazioak sendotzeko lagundu egin die: “Bakarrik joan behar nintzen baina lagun bat etorri eta berarekin askoz hobeto” dio Teresak. Azken gomendio bezala argitzen digu, halere, momentuoro zaudela beste pertsona batekin, eta horrek tentsioak sor ditzazke arazoak daudenean: Denda jartzerako orduan, ekaitzak, bidean zalantza sortzen direnean, bidetik galtzea...

Basaburuko biztanle honek lagun batekin bizikletarekin ibilaldi luzea egin zuen, Velodyse deitutako bidea, Frantziako Atalntiar kostaldeko goitik behera zeharkatzen duena. Eurovelo 1 bidea ere deitzen diote. Gogora dezagun gurean ere hitz egin dela halako ibilbideak sartzen, Eurovelo sarea-

“Haurrek haiekin jolastea besterik ez zuten eskatzen”



Leire, Etiopian laguntzen egon da


izan zen jaso nuena; jende asko kalean lo egiten baitzegoen”.

Wukro herrian dagoen erakundearen sortzailea Hernaniko gizon bat da. Umezurtz-etxea kudeatzen du, baina horretaz gain lan “handia” egiten du: herriaren daraman 20 urtetan zehar asko landatu ditu, klima hobetuz, baratz asko sortu ditu, udalarekin lan egiten du... 400 ume inguru pasatzen dira egunero erakundetik, haietako askok gurasoak galdu dituzte HIESa dela eta. Egunean umeak erakundean daude eta gauean herriko familia batekin: “Umeak beste familia batekin bizi dira, familia horri laguntzen zaie umea hor izaten”.

Erakundearen zuzendaria egunero joaten da etxe horietako bat bisitatzen. Erakundean dauden bitartean, bolondresen laguntza jasotzen dute umeek: “Goizean goiz baratzean eta animaliekin egoten ginen baina gero udako eskolara joaten ginen, nire kasuan 9-15 urteko umeekin egotera. Arratsaldean jolas libreak zeuden”.

Leire Beunzarentzat, ume horiekin izan duen erlazioa oso polita izan da: “Oso jatorrak dira, oso askeak. Etiopiatik itzulitakoan udalarekin egon naiz lanean eta hemengo haurrekin dagoen desberdintasunez jabetu nahiz, Wukroko haurrek haiekin jolastea besterik ez zuten eskatzen”. Leirek argi du hurrengo batean itzuliko dela, denbora luzeagorako.

“Itzulera gogorra izan da, ez nuen itzuli nahi”. Liliuraturata egon da Leire Etiopian. “Klaseko lagun batek hango proiektu bati buruz hitz egin zidan, oso ondo zegoela eta bere ezagun bat bertan egon zela...”. Tramiteak egin ondoren bidaia luzea izan bazen ere Addis Abbebara ailegatu ziren: “Harrerra gogorra



ADISKIDE SUA

Olagueko kuartel aurrean kendu zioten bizia

Adiskide sua. Bai, polizia edo indar armatuek beren aldeko norbait hiltzen dutenean esaten zaio Adiskide sua. Heriotza batek duen dramatismoa edo larritasuna areagotzen du horrelako zirkunstantzia batek. Ikaragarria baita adiskideen erru zuzenaz bizia galtzea.

Orain urtebete edo gehiago kontatu genuen Adiskide Suaz Ultzaman, Arraitzen, gertatu heriotza. Hamalau urteko mutikoa zen orduan, Jose Etxenike Barberena, Arraizko Probintzianoaren bordakoa.

Gaurkoan, berriz, tenore berean jazo zen gertakari bat dakargu hona. Hau Anuen gertatua da. Olagueko herrian bertan. 1944ko urria zen. Makiak Frantziako muga zeharkatzen ari ziren han eta hemen. Talde bat Orbaitzeta aldetik sartu zen. Eta Urtasun alderaino etorria zen.

Eta larunbata, urriaren 7a. Egun hartan, goizez, Urtasundik Irigura eta hemendik Egozkuera pasa zen maki taldea. Eta ilunduxe artio zain egon omen zen errepide nagusia pasatzeko; lan honetan artzainen batek gidatu omen zuen taldea. Asturias aldera edo zihoazen makiak.

Eta egun horretan gertatu zen ezbeharra Olaguen, iruindar bat hil zutena. Iruindar hau Juan Larrea Zabala zen, 49 urtekoa, Vasconia bankuko langilea eta udak-eta, Lantzen pasatzen zituena. Larunbata hartan ere familia Lantzen zuen eta bera Iruñetik zertorren Lantz aldera.

Lekuko batek erran digu, beste bi lagun zihoazezela autoan Larreakin batera, Francisco Barragan, Bollongo bentako jabea zena, La Equitativa aseguru etxeko gerentea edo, eta falangista famatua. Eta hirugarrena ez dakigu ziur, karabineroen edo guardia zibilen kaboa edo, ez dakigu nor, hor ziurtasuna falta baita.

Eta lekukoek ere ez daude erabat ados ekintza nola gertatu zen kontatzerakoan: batek dio Larreak makiak ikusi zituela errepide bazterean eta Olaguen gelditu eta lasterka joan zela kuartera abisua ematera edo laguntzera. Han, makien beldur, ate eta leiho guztiak hertsia zituztela, eta Larrea, eskutan pistola zuela atarira hurbildu zenean, bertan zegoen guardia bat atera, eta tiro egin ziola, eta hartu zituen balazoez hilik gelditu zela.

Beste lekuko batek, berriz, dio, makiak tirokatu zutela kuartera eta guardiak barnean gorderik zeudela, Larrea hurbildu zitzaiea laguntzeko asmoz pistola eskutan zuela.

Harrigarri xamarra egiten zaigu makiak tiroka hastera, beren nahia ez baitzen hemen gerra egitea, aurrera jotzeko asmoa baitzuten, gorago erran du-

NOTAS TRISTES

Ayer tuvo fatal desenlace la enfermedad que venciendo a la respetable señora doña María del Carmen Almazán y García-Manso viuda de don Miguel Antonio Eyaralar y madre de aquel bizarro comandante pampinés don Enrique Eyaralar que murió en la gesta heroica del Cuartel de Simancas, en Ojón; de aquella pléyade de héroicos militares que agotada la resistencia pidieron al barco de nuestra escuadra que tirase contra el cuartel porque habían entra los rojos.

De este temple y de este espíritu era la finada señora que supo ser para los suyos un fechado de virtudes en cuyo ejemplo los educaba y respetada y querida de cuantos cultivaron su afable trato.

Por todo ello su muerte ha causado en esta familia un sentimiento del que

Diario Navarra: Gertatutakoaz hitzik ez. Gerra zentsura zen garai hartan.

gun bezala.

Heriotza agiria Olagueko Erregistro Zibilean jarri zuten biharamunean baina heriotza ordua ez du jartzen. Zertaz hil zen aipatzerakoan honako hau jartzen du, soil-soilik: "falleció...a consecuencia de hemorragia por balazos acción de guerra"

Juan Larrea eta bere familiatz, Lanzko Danbolini, Julian Beuntza Ilarregiri, galdetu genionean zera erran zigun: "Bai, jende oso ona, hemen Pertixenean gaineko aldean bada etxe ttiki bat eta hor pasatzen zuen uda guztia familia horrek. Senar-emazteak eta hiru neskatu ziren. Andrea, Rosario Izco Saralegui, Olagueko alaba. Eta umeak, berriz, Maria Carmen, Maria Rosario eta Maria Teresa"

Heriotza agiriak haurren adinak hauek direla dio: 10, 6 eta 3 urte. Hori da jartzen duena nahiz jakin badakigun ez direla juxtu-juxtu urte horietakoak. Diferentzia ttikiren bat badago tartean.

Juan Larrea karlista fierra omen zen eta prestigio gizona. Oso ezaguna.

Gauzak hobeki ikasi nahiez bere alaba batekin egoteko asmoz, telefonoz deitu genion bati, Rosario-ri, ea nonbait patxadaz egon gintezkeen; bere aitaren

historiaz jakin nahi genuela.

Ez zuen deus jakin nahi izan, oraindik ere bere bihotzean bizi-bizi baitzuen gertaera, nahiz tenore hartan oso ttikia izan, edo, beharbada, horrexegatik hain zuzen. Sei bat urte zituen eta nahiz 70 urte pasa, kontu haiek berritu nahi ez. Hori erran zigun eta gaineratu ea zer nahi genuen, ea historia hori nahi nahi genuen, frankismoaren kontra erabiltzeko. Haserre! Oso haserre gurekin.

Ezetz erran arren, guk historia hura paperean jarri nahi genuela, besterik ez, ez zen kupitu gutaz.

Hala ere zenbait gauza jalki zizkigun eta aipatu

ziguen nola bide zetozen hiru lagun beren aitaren autuan, Bollongo Barragan eta beste bat. Bere aitak ba omen zuen pistola bere lizentzia eta guzti eta makiak ikusi bide zituzten Olague ondoan. Hori ikusi zutenean, kuartera defendatzera hurbildu omen zen bere aita eta kuarteletik guardia zibil batek tiro egin omen zion eta hil.

Tiroak hartu zituenean "Dios, Patria y Rey" oihu eginez hil omen zen, "gure aita oso espainolista zen, oso espainolista" harrotasunez erran zigun.

Besterik ere erran zigun: udak Lantzen pasatzen zituztela eta Lanzko oroitzapen oso onak dituela, baina ikaragarria izan zela gau hura eta berritu nahi ez.

Zauriak denborak sendatzen omen ditu. Batzuetan.

El señor

DON JUAN LARREA ZABALA

HERMANO DE LA PASION DEL SEÑOR

Falleció el día 7 del corriente, después de recibir los Auxilios Espirituales y la Bendición Apostólica de Su Santidad.

R. I. P.

Su resignada esposa doña María Rosario Izco; hijas María Carmen, María Rosario y María Teresa; hermana, Sor Teresa de Jesús (Carmelita Descalza, ausente); madre política, doña Dorothea Saralegui (Vda. de Izco); hermanos políticos, primos, tios y demás interesados.

SUPPLICAN a sus amigos y conocidos encomienden a Dios en sus oraciones el alma del finado y se sirvan asistir a los funerales que por el eterno descanso de la misma se celebrarán el VIERNES, día 13, en la Iglesia Parroquial de San Agustín, a las ONCE de la mañana, por lo que les quedarán muy agradecidos.

Todas las misas que se celebren en la misma Parroquia, así como las de los PP. Carmelitas, PP. Redentoristas y Padres Capuchinos de esta ciudad, Parroquia de Arraiz, Lanz y Olague en dicho día, así como el Novenario que se celebrará en la Iglesia de las MM. Carmelitas de Betoño (Alava), podrán aplicarse en sufragio del alma del finado.

Domícilio: Paulino Caballero, 4. La familia no recibe. No se invita particularmente.

FAMPLONA, 10 DE OCTUBRE DE 1944.

Hiltzailea

Edozein gertakari dela eta, hoberena izaten da zuzen-zuzenean protagonistengana joatea. Oraingoan ez dugu zortetik izan. Hala ere, egun batez adiskide batekin ari nintzela kontu honetaz, hara ustekabea! Berak ere bazuen gertakizunaren berri, baina harrigarriagoa zena, hiltzailea nor zen ere bazekien.

Adiskide honek hala erran zigun: "bai, nazionalen tropetan egin zuen gerra eta ondoren, lehenik, karabinero eta, gero, guardia zibila izan zen gizon hori. Huelvako semea zen eta Francisco Barrera zuen izena. Jakina, hilketa harentatik ez zuen zigorrik izan, herriz aldatzea zigo-

rra bezala hartzen ez badugu behintzat"

"Ez zen buru argikoa eta ondoren ere izan zuen ustekaberen bat. Ez, gertaera latz hark ez zion burua aldatu".

"Eugi, Atarrabia... hemen, Nafarroan, ibili zen" Aspaldian hila behar du izan.

Bai, garai latzak ziren haiek. Denbora hartan fusilen katuak aise sakatzen ziren, lehenbiziko tiro eta gero galde. Hori zen erabiltzen zen metodoa. Olaguen ere halatsu gertatu zen, Juan gizajoa hilik suertaturik. Garai latzak. Gerra garaiak.

Hiztegia



AREAGOTU: GEHIAGOTU.
JAZO: GERTATU.
LEKUKO: TESTIGU
HERIOTZA AGIRIA: DOCUMENTO DE DEFUNCIÓN.

KUPITU: ERRUKITU
OROITZAPEN: RECUERDO
ZORTE: SUERTE
SAKATU: ZAPALDU
KATUA: GATILLO.

"Botereak badaki amorruek ez diela inongo mozkinik emango, beraz, egokitu behar"

Angel Lertxundik aurreko orrialdeetan azaltzen digu nola benetako aberats eta boteretsuek ez duten batere gustuko izen eta abizenez ezagutzea, noraino kontrolpean duten politika, ekonomia eta gizartea. Ezkutatzeko horren ideia logikoa da, haiek askoz gutxiago dira, eta boterearen hariak uste baino ahulagoak izan daitezke, nor jakin. Eta hori da, zehazki, Gimenezek egin duena, nafar oligarkiari maskara kendu. Aldaketa politikoa gauzatu den honetan ikusiko dugu hari horiek mantentzen diren edo moztuko diren.



Nola deskribatuko zenuke liburua?

Galdera zuzena, baina erantzun zaila. Orain dela gutxi irakurle batek eman zidan definizioa: "Begara Iban, Corralito Forala, egitura bat da, orduko nagusiek egindakoa, haien semeek gureen nagusi izaten jarraitzeko". Azken finean, dirua, betiko poltsikoen barruan jarraitzeko.

Aldaketa politikoa gertatu da, alderdien aldaketa, baina eliteek eraldatzeko eta egokitzeko abilidade handia izan dute.

Maskara aldatu eta aurrera jarraituko dute?

Aurrekaririk ez duen egoera batean gaude, berria da egoera. Egokitze lanean daudela esango nuke. Politikoki, UPNk amorruez erantzutea normala da, ez zaie batere gustatu hauteskundearen emaitza. Atzeko botereak, aldiz, lanean ari dira jada eta argazki esanguratsu bat emango dizut: sanferminen aurreko egun batean, Parlamentuko gonbidatuen harmailan, eserita zeuden bata bestearen alboan Joseba Asiron eta Opuseko Unibertsitateko errektorea, hitz eta pitz. Benetako botereak badaki amorruek ez diela inongo mozkinik emango, beraz, egokitu behar!

Nafarroako Parlamentua influentzia askoren muina dela azpimarratzen duzu liburuan, aldatuko al da, azken finean, dirua kudeatzeko modua?

Politika eta gizartea, azken finean, interes talka da. Interes orokorra ez da existitzen, ez dago. Edozein gobernuaren erabakiak batzuen alde eta bestearen kalterako izanzen dira. Inor mindu edo kaltetzen saiatzen badira, betiko politikan eroriko

dira. Neurri zehatzak? Ez dakit. Aterioak sortuko dira, egon zaitez ziur. Ezin daitekeena da betetako autobus batera igotzea eta ez diozula inori eserlekua kenduko pentsatu.

Beste elkarrizketa batean aipatzen zenuen gaur egun "Diario de Navarra" egunerokotasunaren gida galtzeak berebiziko garrantzia duen gertaera dela...

Kazetaritzan duela 15 bat urte hasi nintzen. Diario de Navarra esandakoa "egia" zen. Besteon lana hori ezeztatzea edo zerbait osagarri ematea zen. Liburuan aipatzen da, nola bota zuten behera Otanoren gobernu oso txikia zen albiste batekin. Egun batetik bestera gobernu bota zuten. Orain askoz zailagoa izanen litzateke holakoren bat egitea. Argitaratzen dituzten berri asko egun batetik bestera "hiltzen" dira. Albisteen abangoardia "Diariok" galdu duen beste adibide bat ikusten dugu Kontuz elkarteak CAN kasuan ateratako albisteekin: haiek ez zuten ezer esaten baina berriak mantendu dira gizartean "bizirik".

Zenbait adibide argi aipatzen duzu nola Guda Zibilaren ondoren, industria asko lapurtua izan zen... Ikusiko al dugu noizbait herentzian jendeak ondasunez gain erantzukizunak ere jasotzen?

Gaur egungo jabeek beraien iragana garbitua ikusten dute. Memoria historikoa jorratzearen alde daudenek argi dute: egia, ordaintza eta justizia. Egia oraindik ere lantzen ari gara, ba pentsa non geratzen diren ordaintza eta justizia. Bide hori landu behar da oraindik.



"Ez dakienari erakustea"

Behin, Iruñean, gaizki aparkatua utzi nuen ene autoa. Eta atzera autora joan nintzenean, autoaren aurreko kristalean jarria opatu nuen papertxo bat: Uxena edo isuna zen. Eta, ez dakit zergatik izan den, baina isunak beti pagatu izan ditut, baita ordaintzeari ihesi egiteko aukera zegoenean ere. Hala, handik egun batzuetara, joan nintzen pagatzera Policia Municipal edo Herrizaingoaren ofizinetara eta sarreran, ezkaratzean, erdi kristalezkoa zen gelatxo batean zegoen poliziarengana jo nuen, leihatilara.



-Aizu, uxena pagatzera etorri naiz, -nik euskaraz.

-¿Queé? -Erdi oihuka erantzun zidan.

Nik, berriz ere:

-Uxena pagatzera natorrela esan dizut, jauna.

-No le entiendo. -Bere ahotsetik, antzeman nion, rumano edo bulgarotako hartu ninduela, eta otzan-otzana esan nion:

-Le decía que vengo a pagar una multa. No se si se ha dado cuenta pero le estaba hablando en vasco. Es que soy vasco (2 segundu itxoin) ...y navarro -horrela bota nion edukazio guztiz. Eta ahalik eta umilen.

-Oiga, Vd. será navarro, pero no vasco.

-Sí, sí, yo soy navarro y vasco porque hablo vasco.

-Señor, Vd. es navarro, pero no vasco. Si es navarro no es vasco.

-Pues mis padres son navarros y hablan vasco -nik otzan-otzana, ene bordatik inoiz atera ga-bea banintz bezala.

-No, no, ustedes no son vascos, son navarros. Y si son vascos no son navarros.

Ni baino zaharragoa zen gizona, hirurogei urtekoa edo, azkarra, ahots lodi eta indartsua, Erriberako azentu garbia, goitik behera begiratzen zaituenetakoa...

Nik, apal-apal, eta edukazio hoberekin, Obispoaren aurrean banengo bezala, hala esan nion:

-No sé. Es la primera vez que me dicen eso.

-Sí, sí, es como yo le digo, -berak erantzun, ja-

kinduriak, galoiak eta adinak ematen duen segurtasun osoz.

-Bueno, pues a lo que íbamos, dígame donde puedo pagar esta multa.

-Suba al primer piso... (Ez dizuet dena azalduko, zuek ere isunen bat pagatua izanen duzue eta).

Hala utzi nuen gizona, gustura, pozik eta harrotasunez betea. Egun hartan ere miseriakidiazko obra eder bat egin zuen, lehenbizikoa gainera, hau da: **ez dakienari erakustea**. Eta ongi egiten duenari eskertu behar zaio. Nik behintzat egun hartan eskertu nion, bihotz-bihotzez, zerbait baino gehiago ikasi bainuen: **gure kontua, euskaldunon kontua, oso-oso berde dagoela, alegia**.

Hau guztia gogora ekarri dut, ahalik eta xuxenen, ahalik eta garbien eta, bat-batean, ardo frexkoa dastatzeko gogo sortu zait. Bai, bazkaltzerako sotoko ardo frexkoa aterako dut, ezagutu nuen polizia munizipalaren osagarri topa egiteko. Non ote da nire adiskide hura? Non ote dabil? Bizi ote da? Osasunez ote da?

OHARRA:

Aspaldian idatzi nuen gertaera hau ekarri dut gaur hona. Eta ekarri dut Sanferminetan, azken gauean, Iruñeko alkate berriari, euskaraz eta erdaraz egin zuen agurra zela eta hartu zuen fixtukadarengatik. 30 urte eta deus gutxi aurreratu dugu. Betikoan gara.



Eskualdeko egileen bi liburu berri



Basaburuko Txetxu Biguri poesia eta arte liburu bat kaleratu berri du

Txetxu Biguri eta Luisa Aldaburu artistek olerkiak eta irudiak batzen dituen liburu bat aurkeztu zuten uztailean. La magia de compartir, BURUBIARTEN izenburupean. Txetxu Aizarozko bizilaguna da eta Burubiartek "egitasmo artistikoak, sormenean batasuna" adierazten duela esan zigun. Elkar banatutako sormen esperientzia honetan, "banakotasuna alboratu eta biok sortzaile" dira, "bi pertsona, baina artista bakarra, emaitza bakarra".

Nola bururatu zitzaizuen liburua egitearena?

Orain dela ia bi urte elkarlanean aritzeko asmoari heldu genion. Horrela Burubiarte proiektu artistikoa sortu genuen. Honen barne filosofia, sormen indibidualetik aldentzea izan zen eta bi sortzaile era berean batera lan egitea, bien sentsibilitate artistikoak batuz diziplina desberdinetan. Olerki-gintza izan zen aipaturiko diziplinetako bat, hortik bururatu zitzaigun olerki liburua argitaratzea.

Zergatik izenburu hori?

Bestearekin partekaturiko sormen esperientziak dakarren aberastasun zabal horri magia deitzeari ekin diogu, zeren eta ustekabeko emaitza baikor atseginak lortzen baitira; burubiarte hitzak berak izendatzen du elkarketa, hau da, bi buru, bi sentsibilitate, bi aburu, bi arima, bi pertsonaren era

bereko batasun osoa.

Non aurkitu daiteke liburua?

Apeztegi berriko dendan, Area liburu-dendan. Elkar liburu-dendetan eta beraien web orrian, Lekunberriko Lanbroa liburu-dendan eta nola ez, gurekin harremanetan jarriz.

Erakusketa eta artelan asko egin dituzue, ezta?

Igaro diren bi lan urte hauetan, erakusketak, arte azokak, eskultura, marrazki eta ilustrazioak, olerkiak, web orria, <http://burubiarte.jimdo.com>, liburua, eta abar egin ditugu. Eta nola ez, dagoeneko datorren denboraldirako asmo berriak itxuratzeari ekin diogu, eta horien artean bigarrenengo euskara hutsezko olerki liburu bat prestatzen hasiak gara, eta tailer arte sortzaile bat eratzea.

Azaroan aurkeztuko du Sandra Iraizozek bere liburua



gitaratzearen prozesua ireki zuen.

Momentuz esan daiteke liburua lehenean kapituluarekin sarearen bidez barreiatu dela, doan. Hilabete hauetan bizitako prozesuari buruz hitz egin dugu berarekin: "Argialetxea bilatzearena lan handia izan zen. Gainera, bat lortu ondoren, kontratua kontuak zirela eta ez dizute uzten esaten argialetxea duzula argitaratu baino lehenago arte".

Kontua Denboran luzatzen ari zenez, argialetxearekin hitz egin eta kapitulu bat "askatzea" adostu zuten, nolabait jendeak liburua eta proiektua ezagutzen hasteko eta denbora irabazteko azaroan liburua aurkezteko.

Argialetxearekin hainbat gorabehera izan ditu Iraizozek: "Idazkera moduarekin eztabaidak izan ditugu, jendea laguntzeko helburua duen liburua denez, idazkera sinplea izan beharko lukeela defendatu dut nik".

Informazio gehiago hurrengo Pulunpeetan edota www.arburu.com webgunean. Horretaz gain jada posiblea da liburua erreserbatzea, webgune horretan duzu informazio guztia.

Heldu diren hilabeteetan eskualdeko gazte honek bere liburu autobiografikoa aurkeztuko du, prozesu "zail eta luze" baten ondoren.

Aurtengo urtarrilean telebistan ikusi ahal izan genuen Sandra En un segundo, tu vida cambia liburua idatzi zuela iragartzen. Hortik aurrera ar-

Mikel Pardo, Auzako mendi gidaria

"Mendi gidaria ez da gailurrera iristeko ordaintzen zaion pertsona, baizik eta edozein ibilbide segurtasuz egitea bermatuko dizun profesionala"



Auzan bizi da duela urte batzuk Mikel Pardo. Mendia gustoko izan du beti, eta mendi gidari izateko ikastaroa egin odoren, afizioa ofizio bilakatzeko lehen pausoak eman ditu. Ultzama horretarako aproposa dela aipatzen du askotan, nahiz eta oraidik ez egon mendi ibilbide gidaturik bertan.

Denetik egiten duzun arren, Ultzamakoetan baino mendi bertikalagoetan ibiltzea gustatzen zaizu zuri ezta, alegia eskalatzea?

Benoa, nik uste dut azkenean pauso natural bat dela... Bide normalek oinez hasi eta poliki-poliki bide zailago edo teknikoagoak bilatzen joaten zara. Gero ertzak eta hormak ikusten dituzu eta hasten zara pentsatzen, "umm...ondo legoke hortik igotzea..." Eta konturatu gabe horretara guztiz engantxatuta aurkitzen zara, beti bide zailagoak bilatzen, gradu altuagoa eta, jakina, entrenatzen helburu hori lortzeko. Tontorrera iristeko badituzu modu pila, eta udan edo neguan guztiz ezberdinak

dira...

Aukerarik ikusten al duzu Ultzaman lan egiteko?

Horretan gaude... Baditugu leku zoragarriak eta begiratoki ikusgarriak aranean, Gr 12 hemendik pasatzen da, trikuharriak eta monumentu megali-tikoak, basoak. Gainera aranean kriston lana egin dute bideak markatzen eta topografiatzen. Osagai guztiak dauzkagu zerbait erakargarria eskaintzeko eta bakarrik forma eman behar diogu. Hor dago gure lana baita ere.

Mendira gure kabuz joateko ohitura handia dugu, noiz da beharrezkoa mendi gidari bat kontratatzea?

Egia da Euskal Herrian ez dagoela oso zabalduta gidariak kontratatzea mendira joateko. Ez baldin bada bide oso tekniko bat egiteko. Estatu frantsean, ordea, edozer egiteko, bai mendizale taldeek bai jende partikularrak mendi gidarien zerbitzua hartzen dute. Hor mendi gidaria ez dute ikusten gailurrera heltzeko ordaintzen duten pertsona bat, baizik mendi edo ibilbide hori ziurtasunez egiten lagunduko dien profesional bat bezala. Edozein ibilbidetan: alpinismoa, trekking, eskalada, egoerak...

Hildako dezente izan dira aurten Pirinioetan, istripu horiek ekiditeko modurik badago?

Burutik kendu behar dugu denok alpinistatik hobereak garela eta badakigula dena mendiaz. Edozein ibilbidetan arazoak sor daitezke: zonalde batean bat-batean elurtegi bat dago eta ai ene..., gainera izoztuta, eta interneten ez zuen hori markatzen... edo hau markatzen zuten igoera erre bezala eta, hau da hau! Oso zaila da, eta gainera azpian kristoren horma dago eta erortzen banaiz akabo... Horrekin ez dut esan nahi istripu guztiak axolagabekeriagatik gertatzen direla. Baina egia da prestatuntzarekin asko eta asko saihestuko genituzkeela. Eta hor ere gidarien lana sartzen da. Batzuek pentsatuko dute txorakeriak direla eta zertarako ikasi behar da motxila ongi jartzen... baina momentu txar batean motxila gaizki jarrita eramategatik oreka galtzen duzu eta...



Kirol maila handiko triatloia izan da aurtengoa

Hasiera batean jende gutxi zegoen izena emanda, eta beldurra zegoen parte hartzea txikia izango ote zen, baina ohi bezala, azken bi egunetan izen emateak biderkatu eta 76 kirolarik hartu zuten parte triatloian.



Sarituen irudia Larraintzargo igerilekuan

Joan den urtean 73 izan ziren. Kirolari kopurua, beraz, mantendu egiten da urtez urte.

Bi kategoria ziren, herrikoa eta federatuena. Bietan bizikletaz eta korrika distantzia bera egin behar dute, baina igeriketan dago ezberdintasuna. Federatuek 500m egin behar dituzte Leurtzako urtegian, eta kategoria herrikoiko kirolariek 200m. 25 izan ziren proba herrikoian, denak gizonak, eta 51 federatuetan.

Proba herrikoian irabazlea Asier Juanbeltz Beruete ko bizilaguna izan zen, spinning-eko monitorea, bigarren Mikel Merino, eta hirugarren Mikel Iribarren.

Federatuetan Elisa Ester izan zen emakumezkoetan irabazle. Bigarren Irantzu Beloki izan zen, eta hirugarren Marian Iturralde. Gizonezkoetan Martin Iraizotz garaile, Iñigo Sevillano bigarren eta Jorge Tirapu hirugarren. Oso denbora onak egin zituzten, bereziki Martin Iraizotz txirrindulari ohi eta Saltoki

taldeko kirolariak: 56 minutu eta 28 segundotan egin zuen, bigarren sailkatuarekiko ia 3 minutuko diferentziarekin. Podiumeko lehenengo hirurak jaitzi ziren ordubeteko denboratik gainera. Elisa Ester ere nagusitasunez gailendu zen, bigarrenari 9 minutu ateraz.

Denboraldi berrirako kirol eskaintzarako izen emate epea zabalik

Heldu den denboraldiari begira kirol jardueretan pentsatzeko garaia ere iritsi da. Mankomunitateko kirol zerbitzuak kirol eskaintza ezagutzera eman du, eta izena emateko aukera dago jada. Zunba, spinning, postura berrantolaketa, kross fit, pilates, aerotono, eskupilotako haur eskola Buruzgain Ultzamako taldearekin, dantza, judoa, areto futbola, patinajea, igeriketa, xakea, errugbia, herri kirolak eta eskubaloia.

Irailaren 18ra arte dago izen emateko epea irekita, haur zein helduendako.

Entzun Esan Erran irrartia munduko edozein lekutan

www.ametza.eus
helbidean

RAKEL, ARRAIZKO BIZILAGUNA ETA LIZASOKO ILE-APAINTZAILEA

“Oso zaila egin zait lokala aurkitzea”

Goizean goizetik arratsaldera Lizasoko lokalean aurkitu dezakezu Rakel. Berri-berria dauka ile-apaindegia, kolore txuri elegantez, abuztuko argiak distirak pizten ditu bertan dauden aparatuetan. Arraitzen bizi da aspaldi eta oso pozik dago denbora luzez bilatzen egon den lokala aurkitu baitu.



Nola ailegatu zara Lizason negozioa irekitzera?

Berez Atarrabiakoa naiz eta duela 10 urte Arraitzen bizi naiz. Lanean, beti Iruñerrian ibili naiz, 18 urte badira jada hasi nintzenetik. Eskualdean lagun eta ezagunei egiten nien lantxoak ere baina Atarrabian, Burlatan eta Iruñean lan egin dut. Hona bizitzera etorri nintzenetik negozioa bertan jartzeko ideiarekin nenbilen, hemen bizi zarenez bertan lan egitea da hoberena, semeak hemen daude... Baina, egin esan, larri ibili naiz bertan zerbait aurkitzeko.

Zer dela eta?

Oso-oso zaila egin zait lokala aurkitzea. Gogoia bannuen baina ezer aurkitzen ez nuenez bilatzeari utzi nion denbora luzez... Halere, komentatu zidaten Lizasoko etxe berrien beheko partean lokal bat libre zegoela eta azkenean lortu nuen nire helburua. Jendeak negozio bat hemen hasteko arazo handienetarikoa bat hutsik dagoen leku bat aurkitzea da. Gure herrietan ez dago holakorik eta ezin daiteke negozio txiki bat ireki, demagun, industria poligono batean...

Noiz hasi zinen ile-apaindegiarekin?

Ekainaren 20an ireki nituen negozioaren ateak eta oso ongi doa, pozik nago, ongi erantzun du jendeak. Bezero sare ofizialik ez bannuen ere, “ezaguna” nintzen; eskolan, lagunaren artean, Arraizko jendearen

artean... Askok probatu dute, baina oraindik ere behar dut gehiagok probatzea!

Zein da zure bezero perfila?

Denetarik dut, hona sartzen den pertsonari ilea mozteten diot. Emakume eta neska gazteez gain, bizarrak mozteten ditut, gizonei mozteten diet eta baita umeei ere...

Eskaintzen al duzu zerbitzu berezirik?

Beste ile-apaindegi baten modukoa da hau, aldatzen dena da jendearekin erlazionatzen zaren modua, guztiak gara gure ogibidean profesionalak, bakoitzak estilo propioa jorra dezake hein batean, edota zure modura moldatzen dituzula zenbait orrazkera... Hori da langile edo ile-apaindegi batetik bestera dagoen desberdintasun nagusia. Nire kasuan oso pozik nago produktu ona eskaintzen dudalako; besteak beste, oso kosmetiko banatzaile ona dut.

Arraitzen bizi zara eta duela gutxi Lizason lan egiten duzu, zein onura sumatu duzu?

Lehenik eta behin autoa ez hartzea, abantaila handia da errepidean ahalik eta denbora gutxien pasatzea. Autoaren eta erregaiaren gastuetatik at, semeak eskolan hementxe egoteak sekulako lasaitasuna ematen dit, edozein gauza gertatuz gero, alloan nago!

“Magiaren magia ikusleen txunditu aurpegiak ikustea da”



Hodei Magoa:

Trean harrapatu genuen Hodei, oportetan Sevilla aldera zihoala, aurreko egunean Larraintzako igerilekuan izan genuen bere gaitasun magikoak eskualdeko biztanleei erakusten. Iruñea eta Altsasu tartean bizi den gazte honekin labor hitz egin dugu magia eta hezkuntzaren inguruan.

Igerilekuan “primeran” sentitu zela esan zigun, magia eta umorea uztartzen duen ikuskizuna eskaintzen. Eskuak, ahotsa eta kartak erabiltzen ditu bere trukuak egiteko, baina umorea lantzeko badu laguntzaile bat, Tiritatxo, berari esker denon ahotan irribarreak jartzea errazagoa da.

Txiki-txikitan sentitu zuen lehenengo aldiz Hodei magiaren grina. Oportetan zeudela, mago ba-

ten ikuskizunean eskenatokira boluntario atera eta liluratuta geratu zen umea. Iruñera bueltan magia jolasak erosi zizkioten. Halako batean aitarengana hurbildu eta “handia naizenean magoa izan nahi dut” bota omen zion.

Arte honen grina inoiz ez du galdu eta bere kabuz ikasten joan da urte luzez, “hemen, Nafarroan ez baitago ikasketak edota ikastaroak egiteko modurik”. Zaila izan bada ere, “erraxa eta dibertigarria” egin zaizkio magia lanak ikastea. Haurrek magia ikastea “oso positiboa” izan daitekeela azpimarratu du, lagun eta familia artean erakutsi baitaiteke. Bukatzeko, magiak zer duen berezia galdetuta, jendearen harridura aurpegia, irribarreak edonon ikustea dela esan digu.

2.000 pertsona baino gehiago zaku lasterketan Lizason?



Baserri eskolakoek Guinees errekorra apurtu nahi dute haien bigarren urteurrenean

Hau da datua: 2.096, gutxiagorik ez. Holandan 2002. urtean 2.095 pertsona elkartu ziren zaku lasterketa batean, beraz, jende gehiago behar. Lizasoko baserri eskolak heldu den urriaren 4an, goizean goizetik hasita, festa handia antolatu du eta horregatik lasterketarena, baina ez da ekimen bakarra: foruzainek txakurrekin erakustaldia egingo dute, txokolatzeko postreak egingo dira, umeentzako jolasak eta Ultzamako haragiarekin barbakoa egingo da.

Zaku lasterketara itzulita, esfortzu handia egin dute ekimen hau aurrera eramateko, ikastetxez ikastetxe joan baitira jendea parte hartzera animatuz. Errekorrena ofiziala egin behar dute; horretarako ibilbide desberdinak badaude ere, ordaindutakoaren arabera funtzionatzen dute, “World Record Guinness” enpresa bat baita. Hala ere, lizasotarrek doako bidea aukeratu dute

Gure eskualdean, euskara hilko dugu, ere! (2)

Sendabidea jartzeko herrimentak baditugu. Ikus ditzagun Irurita, eta Lekunberri, adibidez. Biak, axola ez zaizkigun arrazoiak medio, dezente erdaldundutako herri euskaldunak ziren. Baina azkeneko 20 urteetan, Euskarak goranzkoa hartu du horietan. Iruñean, Tafallan, eta beste toki askotan bezalaxe. Eta, zonalde euskaldunaren muinean, bihotzean daudenez gero, esan genezake, euskaldun oso izatera iritsi direla ia ia. Oso bilakaera polita eman da.



Gure zonaldean, Imotzekin, eta, bereziki, Basaburuarekin dugu kezkarik handiena. Lekunberri eta Iruritarren kontrako noranzkoa har dezaketelako. Euskara bizi-bizirik dagoen gunea zelako Basaburu. Gure zonaldeko Amazonas ttikia, alegia. Eta erdaldun ugari etorri da hona bizitzera.

Azkar ohartuko gara, Basaburuara bizitzera joandakoek, bertako Euskarari, zauri edo mesede egin diezaioketela. Kosziente izan behar dutela nora etorri diren, eta zer ekarpen edo kalte egin diezaioketen Euskarari. Etorkizunari. Euskaraz jakitea, ezinbesteko baldintza baita Basaburu kasuan. Baina ez nahikoa. Bertako euskalkiarekin harremantzea, kasik, ere, derrigorrezko baldintza baita, hango paisaiarekin bat egin nahi bada.

Baina, norbanako bezala, bakoitzaren ardurapean horri ekitea zaila da. Hortaz, administrazioa, udaletxea, euskara teknikariak, eta beste dira, herritarrei, egin behar horretan lagundu behar lioketenak. Hango Euskararen ezagutzara lagundu behar dituztenak. Bideak ireki behar lituzketenak.

Eta diogu. Ez gatoz inori ezer aurpegiratzera. Ezer leporatzera. Agian, guk ere, gure herrietan bestelako ardurarik izanen dugulako. Gaizki egingakoaren kargarik. Horregatik, hau, Kontzientzietan eragiteko apuntetxo bat da, besterik ez. Arzoa hatz erakuslez adierazteko, asmo xumea. Ta barka gaitzala, hau irakurrita minduta sentituko den oro.

Hori esanda. Oso aberasgarria, txalogarria, eredugarria, eta goraiatzeko modukoa da, Atetz eta Imotzen jarri zen ekimenaren berri ematea. Zenbait bizilagunek, bertakoak, batzuk, kanpotik etorritakoak, beste batzuk. Bertako Euskara, ohitura, eta beste ikasteko ikastaro bat antolatu zuten larunbat goizetan. Sagrario Alemanekin harremantetan jarri ziren, eta hantxe aritu ziren inguruko hitz, esapide, eta besteren berri hartzen.

Gari da han aritu zenetariko bat: “Oso aberasgarria izan zen. Ikastaroak eskaintzen zituen edukiak landu genituen, ariketak... eta bailaren artean eginagatik, jendea ezagutzeaz gain, esatera gehiago azaldu ziren. Adibide bat jartze aldera. Merienda, merendu, meriendatxo delakoari, Leitzañ “atsaldekua” omen diote. Oso egokia iruditu zitzaidan. Esperientzia hau, eta beste batzuk, kontutan hartuta, Euskarari bultzada eman ahalko litzaioke”.

Hortara animatu nahi zaituztegu. Holako ikastaroak antolatzera. Ostatueta, hango baserri-tarrei, belarri ernez adi egotera. Haien hitzak, doinuak, esapideak, esaerak, zeuenak egiteko. Bertako euskalkiaren Liburu, dvd, eta hiztegieta-tik zuen jarioa aberastea. Inguruak aztarrikatzea, aztarnatzea, arramaskatzea. Hizkuntzarekin jostatzeko, disfrutatzeko, dibertitzeko. Amazonas birika bihurtzeko. Euskaren arnas bihur zaitezten. Euskararen etorkizunaren parte izan zaitezten. Gure esku dago, Euskaren etorkizuna. Euskarak merezi du gure ahalegina



2015eko ekaina eta uztaila. Gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

JAIOTZAK:

ATETZ: *Aroztegi:* Ioar Serrano Gaston, Alfonso eta Martaren semea, 2015eko uztailaren 15ean, Beitiakoetxean. **BASABURUA:** *Erbiti.* Arkaitz Perurena Zabaleta, Martin eta Martaren semea, 2015eko uztailaren 15ean, Itturkon. **ODIETA:** *Ostiz:* Araia Jaunarena Elkano, Miguel Angel eta Maitaneren alaba, 215eko uztailaren 1ean jaioa. **ULTZAMA:** *Urritzola:* Oinatz Landiribar Cobos, Imanol eta Maiteren semea, 2015eko ekainaren 10ean jaioa. Yago Beuntza, Juanjo eta Raquelen semea, 2015eko ekainaren 10ean jaioa. **Eltso:** Gorka Amatria Lopez, David eta Mariaren semea, 2015eko uztailaren 13an, Etxeberrian.

Zorionak jaioberrien gurasoei!

EZKONTZAK:


BASABURUA: *Igoa:* Ibai Arano Nagore, Igoako Arraldekoa, eta Alaia Etaio Oronotz, Igoako Langakoetxekoa. **Ezkontza:** 2015eko uztailaren 25ean. Igoan, Arraldetxikin, biziko dira.

Urte, ume eta zorionak perrataka ezkonberriei.

HERIOTZAK

BASABURUA: *Berute:* Alfonsa Etxarri Lopez, 2015eko uztailaren 23an hil zen, 87 urtetan. Apeztegiko etxeokandrea zaharra. **IMOTZ:** *Muskitz:* Joaquin Zenotz Argaña, 2015eko ekainaren 6an hil zen. Dorreko etxeokandrea. **ULTZAMA:** *Alkotz:* Jon Castillo Sola, 2015ko maiatzaren 14an hil zen, 33 urtetan. Matxin-dronekoa.

Gure oroimenean izanen zarete



Alfonsa



Araia gurasoekin




Arkaitz gurasoekin



Ioar eta familia



Oinatz, aita eta arreba



Alaia eta Ibai

Uda: sugeak, mapatxeak eta inbasioak

Zer ote dute komunean hiru elementu hauek? Udako beroak animaliak beren gordelekuetatik ateratzea eragiten du. Euliak, liztorrak, eltxoen inbasioak izaten ditugu tarteka udan, baina bereziki honetaz hitz egiteko parada, albiste gutxi egonda, nonbaitetik atera behar baitira.

Mapatxe inbasioa, aurtengo Nafarroako udako sugetzerra

Behinola, ohetik altxatu, irratia piztu, eta eguneko albistea garrantzitsuenaren tartea honexek hartu zuen: mapatxe bat agertu zela Nafarroako Erriberan. "Mapatxe bat? Eraman ezazu portadara, eta lehenengo bi orriak eman!" agindu zion Cordovillako egunkariko zuzendariak bere kazetaririk onenari, eta hala egin zuten beste bizpahiru egunkarik.

Irratian entzuteaz ere aspertu eta beste irrati bat jarri nuen, serioagoa zelakoan. Serioago ari ziren bai, baina mapatxeaz...

Eskerrak Nafarroako Gobernuak hiru-lau orri hartzen zituen egunero, eta udako festetan ikurrinaren auziak, bestela mapatxez gain batek jakin zertaz arituko ziren!

Erriberan bazuten berea, baina guk ere gure udako sugetzerra nahi genuen, ordubeteko irratsaioa ezin bete Erriberako mapatxez hitz egiten eta! Mapatxea eta inbasioa hitzak hartu eta berehala burura etorri zitzaigun: amerikarrak eta haien inbasioak! Baina urrunegi ditugu inbasioak eta gerrak. Halaxe, Orgi basotik etorri zitzaigun udako sugetzerra: amerikarrez eta inbasioez ari ginela, gure basoko inbaditzailea identifikatu genuen, Haritz Amerikarra!

Inbaditzaileei orain aloktonoak deitzen diete

Aloktonoa dela eta ez inbaditzailea esan zigun Edur-

ne Gerendiain Garrapo taldeko kideak. Baina batek ezetz, yankiak inbaditzaileak direla, pertsonak zein zuhaitzak izan!

Gure ikerketa hasi zen orduan, eta gure teoria plazaratu genuen: haritz amerikarrak gure artean infiltratzen ari dira, edonon ateratzen dira, eta euskal haritzen kultura eta hizkuntzarekin bukatzen ari dira. Baina, nor zen orduan Erriberan agertu zen mapatxe hori?

Han zuhaitz gutxi dituztela eta akulturalizazioarako bestelako modu bat ikertzen ari dira Estatu Batuetako inteligentzia zerbitzuak, eta mapatxea? Noski! Mapatxea CIAko mertzenario bat da!

Udako sugetzar bat irakurri duzu

Eta honela, honaino irakurtzea lortu baduzu, zuk ere udako sugetzar bat irakurri duzu. Pulunpek sortutako udako sugetzerra.

Hala ere, batek jakin egia den hemen idatzirikoa. Irak, Afganistan, Libia eta beste hainbat herrialdetako inbasioak egun batetik bestera gertatu ziren, Ukrainako gerra ere bat-batean sortu zen, eta guztietan, estatubatuarrek ez zeuden urruti. Kontuz ibili beraz basoan ibiltzean ingelera entzuten baduzue, haritza bada moztu ezazue errotik; baina mapatxeak badira, otoi, utzi itzazue bizitzen, CIAko mertzenarioak bai, baina iheslariak ere izan daitezkeelako, beren herrialdeko miseriatik ihesean.

Maitane Mendibe Gaskue, Ultzamako 0-3 urte arteko haurren eskola zuzendaria

Iruñean 0-3 haurrendako euskarazko eskolak jartzeko borondate gutxi ikusi da orain arte. 17 eskola dira erdaraz eta bi euskaraz, nahiz euskarazkoen eskaria bi eskola horiek betetzeko baino askoz ere handiagoa den. Jakina, Iruñean euskarazko eskolarik jartzen ez bada, pentsa zer gertatzen ari den Iruñetik beheiti. 0-3 urte arteko haurrendako euskal eskola kontuetan zergatik gertatu da gertatu dena? Zer eskola eredu eskaini nahi izan dute?



“Haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako eskoletan gertatzen ari den bezala, Iruñea alderdiko 0-3 haur eskoletan ere D eredu indarra galtzen ari da. Gure eskolen artean gero eta indar gehiago hartzen ari den eredu "British" delako eredu da.

Zergatia? Ba agian, gizarte eta lan munduan ingelarak hartzen duen garrantzia izan daiteke; euskara eta ingelera ez daude batera parekatuak arlo hauetan. Bestalde, esan beharra dugu, gure haur eskolan jasotako matrikulen %99 euskarazkoak direla eta aipatzekoa da, bestalde, guraso euskaldunen kopurua pixkanaka gora doala. Gaur egun, Nafarroako gobernuarekin dugun arazorik larriena murrizketak direla esan dezakegu”.

IRITZIA

ZORIONAK ZUEI!



Virginia



Begoña



maria josefa



Maddi



EDURNE



IRATI



HEGOI ETA BAKARTXO



Imanol



Braulio

¿CREES QUE LLEGARÁN SOLOS A RECICLARSE? PONLE CABEZA ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA **RECICLA TUS RAE* BIRZIKLATU ZURE TEEHak***

Entrega tu viejo aparato en la tienda donde compres el nuevo, o usa los servicios de tu mancomunidad: el servicio de recogida de voluminosos (Tel. 948 302 898) o los puntos limpios móviles y fijos. Consulta en tu mancomunidad

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoen bilketa zerbitzua (Tel. 948 302 898) edo garbigune mugikorrek eta finkoak. Galdetu zure mankomunitatean

*Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos. / *Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

948 423 242 / www.mcp.es

Instalaciones Solares Térmicas
Instalaciones Solares Fotovoltaicas
Calderas y Estufas de Biomasa
Ahorro y Eficiencia Energética

energia berriztagarriak
tedesna
energías renovables

Eguzki-instalazio termikoak
Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 | tedesna@tedesna.com | www.tedesna.com

DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberitzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

Sateliteari esker, internetera konektatu zaitez

22
Mega arte

Senatel
Telecomunicaciones
848 410 500
Sta. Vicenta Maria 14 31012
IRUÑEA
info@senatel.es



Internet etxean arazorik gabe!

22 Mb-erainoko abiadura, hilean 45,48€ ordainduta. Internetera konektatu, zure etxearen kokapena arazoa izan gabe.

- Telebista antenen instalazioak eta konponketak.
- Canal Plus-eko banatzaileak eta instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero berrientzat.
- Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500
WWW.SENATEL.ES
info@senatel.es

SENAtel
Telecomunicaciones

